ERREZIL

# Mugarrieta baserria nagusi Errezilgo I. Sagardo Txapelketan

150 lagun inguru bildu ziren bertako frontoian

**30.04.13 - 00:23 - ELI AIZPURU | ERREZIL.**

Pasa zapatu iluntzean, eguraldi hotza eta desatsegina, eragin handia izan zuen horrek Errezilgo I. Sagardo Txapelketan. Giroak ez zuen asko laguntzen etxetik ateratzera baina hala ere, bai herritar eta baita ingurukoak ere ausartu ziren estrainekoz Errezilen antola-tzen zen Sagardo Txapelketara gerturatzen. 150 lagun inguru bildu ziren lehen aldiz herrian sagardo txapelketaz gozatzera.

**Sailkapena**

17 baserritarrek hartu zuten parte lehen lehiaketa honetan. Epaileen esanetan ,«nahiko sagardo politak ikusteko eta probatzeko aukera» izan zen eta pozik agertu ziren berturatu ziren lehiakideekin. Mugarrieta baserriko sagardoa izan zen hautatua. Bigarren lekuan, Urteaga suertatu zen eta Antzelai baserriko sagardogileentzat izan zen hirugarren saria. Gaztetandik kultur elkarteko antolatzaileak ere gustura agertu ziren herritarren eta inguruko jendearen aldetik ekimenak izan zuen harrerarekin. «Baserri batzuetako sagardoak, jendeari goxoenak iruditu zitzaizkienak edo, nahiko azkar bukatu ziren eta aurreneko ekitaldia izateko, eta eguraldiak asko ez bazuen ere laguntzen,herritarrak eta inguruetako jendea Errezilgo sagardoa probatzeko eda edateko gogoarekin etorri zen, eta pozik itzuli», adierazi dute.

Sagardoarekin batera, jendeak nahikoa tortila pintxo eta txorizo egosi jateko aukera ere izan zuen.

Estraineko esperientzia kontutan hartuta, datozen edizioetan sagardo lehiaketa antolatzeko ere zapore ona laga du Errezilen ospatutako Lehen Sagardo Txapelketak.

**TAGS RELACIONADOS**

mugarrieta, baserria, nagusi, errezilgo, sagardo, txapelketan

Publicidad



**Movistar Fusión**
Fijo, móvil e Internet en una misma factura. Por 59,90€/mes, para siempre.
www.promocionmovistar.es



**El nuevo iPad - €17.90?**
Compradores españoles consiguen hasta un 80% de descuento usando un sorprendente truco
www.megabargains24.com



**Samsung Galaxy S4desde 0€**
Nuevo Samsung Galaxy S4 disponible en PhoneHouse. Cómpralo ya! Mejor precio garantizado
www.phonehouse.es/Galaxy_S4



**Comparador Seguros Coche**
Precios de más de 30 seguros de coches. Encontrarás el más barato en 3 minutos!
www.acierto.com

**Para poder comentar debes estar registrado**

**Añadir comentario**

Iniciar sesión con Regístrate

Escribe aquí tu comentario.

La actualización en tiempo real está **habilitada**. (Pausar)

**Mostrando 0 comentarios**

Ordenar por los más recientes primero

Suscríbete por e-mail RSS